

# ANTXIETA'TAR JOSE

## (ZORIONDUN BARRIA)

Oraintsu - garillak 22 - Erroma'n zoriondunen maillara jasoa izan da Antxieta'tar Joxe. Egia esan, Antxieta Joxe jaio ez zan Euskalerrian jaio, baiña berak beti esaten eban: «Ni euskalduna naiz». Bere aita Antxieta eta Zelaian'dar Joan, Azpeitiarra, Urrestilla auzokoa zalako, naiz eta Joxe Kanarias'en jaio.

Joxe'k bere ikasketak Portugal'eko Koinbra ikastetxe nagusian egin zituan, eta gazterik - 17 urte - Jesusen Lagundian izena emon eban, laster Brasil'en indioen artean lan egiteko asmotan.

### BRASIL'EN

Osasun makalekoa izan arren - bizkar-azurra okertuta zeukan - arrigarriak dira Joxe'k Ego-Ameriketan egindako ibilaldiak: Arjentina, Uruguay eta batez be Brasil'go lurralde zabaletan, beti oiñez, eta askotan bakarrik eta bide barik.

Aita Antxieta'ren bizitza berba gixitan adierazoteko, mixiolari, osagille, maixu eta bertsolari izan zala, esan bear dogu... baita be mirarigillea ez txikia, orduko lekuko edo testigui siñistu bear badeutsegu, beintzat.

### INDIO-ARTEAN

Indioak eskolatzeko euren izkuntzan - «tupieraz» - gramatika, iztegi eta liburuak egin zituan...

Gaur Sao Paulo deritxan uri andian, ikstetxe bat egin eban, eta orduko erri koxkorra, gaurko 5 milloi biztanledun uri andi eta industriz betea da. Onegatik eta beste lan askogatik, gaurko brasildarrek Aita Antixeta bertako gizonik andienetakotzat dauke, eta garillarren 9-an ango eskola guztietan maixuek euskaldun onen bizitza erakutsi bearra dauke.

Indioen eta portugaldarren artean bakeak egiteko zenbat aldiz Antxietak bere bizitza arrisku gorrian ipiñi eban...!!

Azkenean bere biotz-on eta maitsaunez millaka indio bateatu zituan...! Xabier'ko Frantzisko'ren antzera bere besoak neke-neke egiteraiño.

### BERTSOLARI

Ainbeste lan eta nekeren artean ez eban Joxe'k bere umore ona galtzen, eta portugaldarrekin bakeak egiteko indioen eskuetan baituta edo preso egon zanean, bere astialdiak bertsoak egiten emoten ebazan. Gaur bost liburu ezagutzen ditugu latinez, portugesez eta tipueraz egindako bertsoz beteak. Paperaren faltan itsasondoko ondartzan makil-puntaz idazten zituan, gero buruz ikasi, eta papere-ra aal ebanean aldatzeko.

### LANAK

Brasil'go jesuiten buru izentatu eben, eta dakigunez, millatik gora dira Antxietak Brasil'en eragıtako eleizak, gaixo-etxeak, eta lan-etxeak. Europa'tik landareak eta abereak eroan zituan ango indioei lurra lantzen eta abereak zaintzen erakusteko.

Orduko testigui sinistu ezkerro eundaka mirari eta gauza arrigarriak egin zituan antxieta Aitak bere bizitza santuan: gaixoak osatu, gauza ezkutuak agertu, pekatarriak eta sinisbakoak Jaungoikoaren argira eta maitasunera ekarri...

### AZKEN-URTEAK

Antxieta Joxe bere azken urteetan Reritigva deritxan erri txikira baztertu zan, Jaungoikoaren aurrera joateko bere arima prestatzera, eta an be bertsoak egiten jarritu eban, Jaungoikoa aurrez-aurre ikusi arte. 64 urtekin il zan, guztiak santutzat zeukatelarik, 1,597 gn. urtean. 1,736 urtean Agurgarrien maillara jasoa izan zan, eta joan dan garillarren 22-an zoriondunen mailara jaso eban Joan Paulo Aita Santuak.

Goikoetxea'tar Iñaki